

# ZENTROKO IRAKURKETA-PLANA PRESTATZEKO EREDUA

**Oharra:** Zentroko irakurketa-plana egiten laguntzeko izan daitekeen eredia da dokumentu hau. Hau plana prestatzeko bide bat da hau, baina beste makina bat ere badago. Zentro bakoitzak diseinatu behar du bere bidea, hemen azalduko duguna baino apalagoa edo zehatzagoa edo are handiagoa ere, bakoitzaren ahalmenen eta premien arabera. Irakurketa Planak zenbat iraungo duen ere bakoitzak erabakiko du: urtero errebisatzekoa, hiru ikasturterako...

**Iturria:** Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. 2017

## **Aurkibidea**

Sarrera .....	3
Testuingurua .....	3
Zentroaren ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan: .....	3
Diagnosia.....	5
Irakurketaren inguruko indarrak eta ahuldadeak: .....	5
Jardun-ardatzak: .....	6
Helburuak .....	7
Ekintzak .....	8
Ebaluazioa .....	10

# Sarrera

## Testuingurua

Gure zentroa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendekoa da, publikoa da eta **doanekoa, D eredukoa**, 2 - 16 urte bitarteko neska-mutilentzako prestakuntza arautua ematen du, eta Haur-hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako proiektuak ditu, **leku askotako** eta era askotako ikasleei irakasteko. Gipuzkoan dago, eta mila ikasle eta ehun irakasleko klaustroa ditu(...). Gure proiektuaren asmoa da oinarrizko hezkuntza-gaitasunak lantzea, eta gure ikasleak bizitzarako prestatzea.

## Zentroaren ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan:

Hainbat urtetatik hona, hainbat dokumentu landuta, honelako eta halako proposamen ugari jaso ditugu ikasleen irakurtzeko gaitasuna bultzatzeko gaiekin gutxi edo asko lotutakoak.

1. **Ebaluazio diagnostikoaren** emaitzen azterketa egin ondoren, erabaki genuen hobekuntza-planean **ekintza honi** ematea lehentasuna:

- *Arlo eta gai guztien programazioan, gai horietako bakoitzeko testu espezifikoaren ulermen-gaitasunari bultzada ematea, ikasketarako oinarrizko habe izateko.*

Ekintza horren bitartez, honako **jarduera hauek** bultzatuko dira:

- *Testu desberdinak (mota, erabilera-eremu eta euskarritan) irakurtzea, irakurketa bakoitzari helburu desberdina emanda.*
- *Gelan erabiltzen diren informazio-iturriak dibertsifikatzea, irakurketa kritikoari bidea errazteko.*
- *Irakurketa-ulermena lantzeko protokolo bat erabiltzea.*
- *Ulermenarekin lotutako adierazleak ere ebaluazioan sartzea.*
- *Irakurketa dialogikoa lantzea.*
- *Irakurritakoa ulertzeko gaitasuna handitzeko jarduerak proposatzea, hizkuntzen tratamendu integratuan oinarritutako planteamenduaren bitartez.*
- *Hainbat hizkuntzatan eta hizkera-erregistrotan idatzitako testuak ulertzeko premiaren inguruko jarrera bultzatzea, batez ere, gizartean leku txikiena daukan hizkuntzan sortutako testuak.*

2. 2014-2017 epean hasi zen gure zentroa aurreneko pausuak egiten **Hizkuntza Proiektua** prestatzen hasteko. Hainbat saio landu genituen irakurketari buruz elkarrekin hausnarketan jarduteko. Hona hemen emaitzak:

- *Arlo guztietan bultzatuko da irakurketa, ikasteko tresna izateko.*
- *Horrez gain, irakurtzeko ohitura sendotu behar da, hizkuntza bat baino gehiagotan.*
- *Arlo guztietan sartu behar da irakurtzeko ulermenaren garapenaren ebaluazioa egiteko irizpide bat behintzat.*
- *Arlo guztietan erreparatuko zaio irakurtzeko prozesuari, eta horretarako:*
  - *Irakurri aurretik irakurketaren asmoaren araberako ekintza jakinak landuko*

*dira.*

- *Irakurritako testuak ulertzen laguntzeko propio prestatutako ekintzak landuko dira.*
- *Dena delako testuak irakurtzeak helburu jakina duela erakutsiko dugu (lan bat prestatzeko informazioa hautatu, hipotesiak egiaztatu, eduki gehiago bildu...).*

3. Azkeneko urteetako lanaren ondoren, **Hizkuntza Normalizatzeko Proiektua** prest dugu dagoeneko, ikasleek euskara ikasi dezaten eta erabili. Horretarako, honako erabaki hauek hartu ditugu:

- *Liburutegiko funtsa handitzean, euskarazko materialei lehentasuna ematea.*
- *Beren obren gainean hizketan jarduteko moduan dauden euskal egileen literatura irakurtzen jardutea.*

4. Gure ikasleen % 20k etxean ez euskara eta ez gaztelera ez den beste hizkuntza bat darabiltela jakinda, zentroak erabaki du **atzerriko ikasleei kasu egiteko planean** honako eginbeharrak ere sartzea:

- *Ikasgela guztietan gela horretako ikasle guztien etxeko hizkuntzako kontsultamateriala jarri.*
- *Ikasleei beren etxeko hizkuntzako web helbideak eskaini.*
- *Ikasleen etxeko hizkuntzako haur-literatura, literatur tradizionala eta modernoaren laginak jarri ikasgelan.*

# Diagnosia

## Irakurketaren inguruko indarrak eta ahuldadeak:

Zentroaren ibilbidea eta aurretik hartutako erabakiak aztertu ondoren, irakurketaren inguruko jardura didaktikoen autodiagnosia egin dugu, jakiteko zenbateraino garatu diren. Horrez gain, hausnarketan jardun gara eta zentroaren egoeraren inguruko informazioa pilatu dugu jakiteko zer daukan alde eta zer kontra irakurketaren alde lanean jarduteko.

		Alde onak	Alde txarrak
Barruko faktoreak	Irakurtzen ikasi	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakurketa-idazketa nola landu jakiteko irizpideak adostu dira.</li> <li>Sarri erabiltzen da liburutegia, irakasleek lagunduta, ikasleek irakurtzeko ohitura hartzearen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago akordiorik testuak idazten jakiteko, irakurtzen ikastearekin bat.</li> <li>Ez dugu planteatu hizkuntza-materiak koordinatua ikasteko moduan lantzerik irakurketa.</li> <li>Tarteka erabiltzen dugu liburutegia, ikasteko ekintza ez-sistematizatuetarako.</li> </ul>
	Ikasteko irakurri		
	Irakurtzeko ohitura		
Kanpoko faktoreak	Irakurtzen ikasi	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal-liburutegiarekin kontaktuan jarri gara, eta zentroarekin batera jarduteko prest agertu dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Familiak ez daudenez oso inplikaturik zentroan, nekez hartzen dute parte programatutako ekintzetan.</li> </ul>
	Ikasteko irakurri		
	Irakurtzeko ohitura		

## Jardun-ardatzak:

Diagnostikoaren emaitzetan oinarrituta eta zentroaren premia nagusiak zein diren detektatuta daukagula, pentsatu dugu garrantzitsua dela honako hiru jardun-ardatz edo lan-ildo hauekin lotutako ekintzak lantzea:

1. "Ikasteko irakurri";
2. "Irakurtzeko ohitura"
3. "Irakurtzen ikasi"

Alabaina, "ikasteko irakurri" ardatzari emango zaio arreta gehien, eta horretatik abiatuta landuko dira ekintza nagusiak. Eskolaren funtsezko helburuarekin lotuta dago ardatz hau, ikastearekin alegia; irakasleak elkarren artean kohesionatzen laguntzen du, hortaz. Gainera, ardatz horri eman zaio lehentasuna hobekuntza-planean nahiz Hizkuntza Proiektuan.

Irakurketa Plana prestatzeko lanak parez pare joan behar du plana praktikan jartzeko lanarekin, horregatik, erabaki dugu plan horrek taxutuko duela zentroaren lana 2017-2020 epearen hiru kurtsotan. Hala, aurreneko urtean hartuko diren erabakiak sendotu egingo dira hurrengo urteetan.

# Helburuak

Planaren funtsezko helburua da ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzea, eta ikusaraztea irakurtzea disfrutatzeko ere badela.

Esandako jardun-ardatz horietako bakoitzaren inguruan, diagnostikoa gogoan hartuta, honako helburu espezifikoak adostu ditugu:

## 1. IKASTEKO IRAKURRI:

- *Akordioak adostu irakasle guztien artean, hainbat testu informatiboren irakurketa koherentziaz lantzeko ikasgelan.*
- *Kolaboratzeko eta kooperatzeko teknikak eta estrategiak aplikatu, testuak irakurtzean irakurritakoa hobeto ulertzeko.*
- *Eskolako liburutegi-mEDIATEKA ondo erabili, informazioa bilatu, hautatu eta kudeatzeko leku egokiena denez, bai informazio digitalaren kasuan bai analogikoaren kasuan.*
- *Irakurtzeko estrategien inguruko eta ikasleei behar duten laguntza eskaintzeko prestakuntza eman irakasleei.*
- *Ikasgeletako eta liburutegi-mEDIATEKAKO kontsulta-materialak egokitu, web-baliabideen garrantzia aintzat hartuta.*

## 2. IRAKURTZEKO OHITURA:

- *Familiei orientazioa eman, ikasleei irakurtzeko ohitura hartzen laguntzeko moduan izan daitezen.*
- *Eskolaren inguruak eskaintzen dituen aukerak baliatu, edonolako testuak irakurtzeko bultzada emateko, batez ere, inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak irakurtzeko.*
- *Ikasgeletako eta liburutegiko irakurketa-materialak, ikasgelako hizkuntza guztietan idatzitakoak, egokitu, gogoan hartuta web-baliabideek garrantzia handia dutela eta ikasgelan hizkuntza askotako ikasleak daudela.*

## 3. IRAKURTZEN IKASI:

- *Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea.*
- *Irakurtzean joriago jardutea eta entonazio egokian.*

## Ekintzak

Hainbat ekintza prestatu dugu, helburu horietako bakoitza lantzeko. Hemen dituzue zehaztuta Planaren lehenbiziko urterako, 2017-2018 ikasturterako, programatu ditugun ekintzak. Kasu bakoitzean, zehaztuta daukagu zein izango den arduraduna, zenbat iraungo duen, zer baliabide eta adierazle erabiliko diren jarraipena egiteko eta nola ebaluatuko diren.



## EKINTZEN PROGRAMAZIOA (2017-2018 IKASTURTEA)

Jarduera-ardatza	Helburua	Ekintza	Iraupena	Baliabideak	Adierazleak
<b>1. Ikasteko irakurri</b>	1.1. Akordioak adostu irakasle guztien artean, hainbat testu informatiboren irakurketa koherentzia lantzeko ikasgelan.	1.1.1. Irakurtzeari buruz elkarrekin hausnarketan jarduteko 3 saio antolatatu, klaustro osoak parte hartzeko.	2017ko urria-azaroa. Zentroko Irakurketa Planaren koordinatzailea.	Berritzeguneak emandako artikulua. Ekintzaren erregistro-orriak. Gogobetetze-inkestak. Bilera-gelen erreserba, bi ostiraletik behin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreikusitako saioetatik, egin egin diren saioen %a.</li> <li>Klaustro osotik, saioetan parte hartu duten irakasleen %a.</li> <li>Saioekin irakasleak zenbateraino dauden pozik, batez beste.</li> </ul>
	1.2. Kolaboratzeko eta kooperatzeko teknikak eta estrategiak aplikatu, testuak irakurtzean irakurritakoa hobeto ulertzeko.	1.2.1. Bikoteka irakurtzeko programa lantzea, bigarren hezkuntzako ikasleekin.	2018ko otsaila-maiatza. Asteazkenero: 11:00 - 12:00. Bigarren hezkuntzako tutoreak.	Eusko Jaurlaritzaren web baliabideak. Gogobetetze-inkestak. Erregistro-orriak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreikusitako saioetatik, egin egin diren saio kopurua.</li> <li>Programarekin ikasleak zenbateraino dauden pozik, batez beste.</li> <li>Irakurtzeko ulertzeko gaitasun eskasa daukaten ikasleen %a.</li> </ul>
	1.3. Eskolako liburutegi-mEDIATEKA gehiago erabiltzea, informazioa bilatu eta irakurtzeko leku egokiena denez, bai informazio digitalaren kasuan bai analogikoaren kasuan.	1.3.1. Eskolako liburutegi-mEDIATEKA ondo erabiltzeko protokoloa prestatzea, irakasleen klaustro osoaren adostasunez.	2017ko iraila-urria. Zikloko koordinatzaileak.	Eskolako eta udaleko liburutegi-mEDIATEKETARAKO protokoloak. ACEX materiala. Gorabeheren erregistroa. Eskolako liburutegiko mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenen erregistroa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Protokolo adostua taxutu.</li> <li>Protokoloaren inguruko gorabeherak.</li> <li>Ikasturtean eskolako liburutegi-mEDIATEKAKO mailegu-zerbitzua erabili duten lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleen %a.</li> </ul>
<b>2. Irakurtzeko ohitura</b>	2.1. Familiei orientazioa eman, ikasleei irakurtzeko ohitura hartzen laguntzeko moduan izan daitezen.	2.1.1. Familientzako gomendio batzuk prestatu eta helarazi.	2017ko iraila. Zikloko koordinatzaileak.	Berritzeguneko aholkularitza. Erregistro-orriak. Bidaltzeko mezua diseinatu eta datu-basea berrikusi.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gomendioen zerrenda.</li> <li>Gomendioak familiari noiz bidali zaizkien.</li> </ul>
	2.2. Eskolaren inguruak eskaintzen dituen aukerak baliatu, edonolako testuak irakurtzeko bultzada emateko, batez ere, inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak irakurtzeko.	2.2.2. Zentroaren inguruan Irakurketa bultzatzeko antolatzen diren ekintzak identifikatu eta ekintzotan parte hartu.	2017ko iraila - 2018ko ekaina. Zikloko koordinatzaileak.	Zentroak, inguruko erakundeekin batera, prestatu duen ekintzen dossierra. Ekintzetan parte hartu dutenen erregistroa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasturtean zenbat ekintzetan hartu den parte.</li> <li>Ekintza horietan parte hartu duten ikasleen %a.</li> </ul>
<b>3. Irakurtzen ikasi</b>	3.1. Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea.	3.1.1. Haur-hezkuntzako ikasleei tarteka ebaluazioa egitea, kontzientzia fonologikoa zenbateraino garatzen ari diren ikusteko.	2018ko maiatza. Haur-hezkuntzako tutoreak.	Ebaluazio-frogak. Ebaluazioen erregistro-orriak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ebaluazioen datak.</li> <li>Ebaluazioa aplikatu zaien ikasleen %a.</li> </ul>
		3.1.2. Proiektuetan lehen hezkuntzako ikasleekin kontzientzia fonologikoa lantzeko ekintzak ere sartzea.	2017ko iraila - 2018ko ekaina. Lehen hezkuntzako tutoreak.	Eusko Jaurlaritzaren web baliabideak. Erregistro-orriak. Ebaluazio-frogak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekintza hauek zenbat proiektutan sartu diren.</li> <li>Kontzientzia fonologiko egokia duten ikasleen %a.</li> </ul>

## Ebaluazioa

Orain arte, Planak aurreneko urterako (2017-2018 ikasturtea) aurreikusita zeuzkan ekintza guztiei egin zaie jarraipena eta ebaluazioa, ikusteko prozesua nola garatu den eta zer emaitza ekarri duen. Hemen daukazue bildu dugun informazioa (balorazioa eta hobetzeko proposamenak ere badakartza), gerora ekintzak eta planak prestatzeko:

**PLANAREN GARAPENAREN EBALUAZIOA (2017-2018 IKASTURTEA)**

Jarduera-ardatza	Helburua	Ekintza	BETETZE-MAILA ETA BALORAZIOA	HOBETZEKO PROPOSAMENA
<b>1. Ikasteko irakurri</b>	1.1. Akordioak adostu irakasle guztien artean, hainbat testu informatiboren irakurketa koherentziaz lantzeko ikasgelan.	1.1.1. Irakurtzeari buruz elkarrekin hausnarketan jarduteko 3 saio antolatu, klaustro osoak parte hartzeko.	Aurreikusita zeuden 3 saioetatik 2 egin ditugu (%66). Klaustroko ikasleen %90ak hartu du parte. Saioekin konforme egon dira; batez beste, 10etik 7ko puntuazioa eman dute. Parte-hartzeari buruz eta gogobetetzeari buruz geneukan ustea baino hobeagoa izan da emaitza.	Ostiraletako saioak kentzea komeni.
	1.2. Kolaboratzeko eta kooperatzeko teknikak eta estrategiak aplikatu, testuak irakurtzean irakurritakoa hobeto ulertzeko.	1.2.1. Bikoteka irakurtzeko programa lantzea, bigarren hezkuntzako ikasleekin.	Aurreikusitako saio guztiak egin dira. Saioekin konforme samar egon dira; batez beste, 10etik 5ko puntuazioa eman dute. Ikasle batzuk motibatuta egon dira eta beste batzuk ez. Ikasleen %25k ez dauka irakurritakoa ondo ulertzeko gaitasun egokirik; horrek esan nahi du aurreko ebaluazioaren aldean hobera egin dugula (lehen %35 ziren gaitasun egokirik gabeak).	Zailtasun handiagoa duten ikasleek zer gustu eta interes dituzten jakiten saiatu behar genuke, programa hobeto egokitzeko.
	1.3. Eskolako liburutegi-mEDIATEKA gehiago erabiltzea, informazioa bilatu eta irakurtzeko leku egokiena denez, bai informazio digitalaren kasuan bai analogikoaren kasuan.	1.3.1. Eskolako liburutegi-mEDIATEKA ondo erabiltzeko protokoloa prestatzea, irakasleen klaustro osoaren adostasunez.	Abenduan prestatu dugu protokoloa, klaustroarekin ados jarrita, aurreikusitakoa baino apurtxo bat beranduago. Ez dugu gorabehera aipagarririk izan, eta protokoloa arazorik gabe ari gara aplikatzen. Lehen hezkuntzako ikasleen %60ak eta bigarren hezkuntzako ikasleen %50ak erabili dute liburutegi-mEDIATEKAKO mailegu-zerbitzua ikasturtean. Ez dugu lortu bigarren hezkuntzan liburutegi-mEDIATEKA erabiltzen duten ikasleen bolumena nabarmen handitzerik (aurreko ebaluazioan %48ak erabili zuen), baina bai lehen hezkuntzan (aurreko ebaluazioan %50ak erabili zuen).	Komeni da bigarren hezkuntzako ikasleentzako motibazio-estrategiak prestatzea.
<b>2. Irakurtzeko ohitura</b>	2.1. Familiei orientazioa eman, ikasleei irakurtzeko ohitura hartzen laguntzeko moduan izan daitezten.	2.1.1. Familientzako gomendio batzuk prestatu eta helarazi.	Gomendioen zerrenda prest dugu. Alabaina, hiru hilabete berandutu gara zerrenda familiei helarazten. Aurreikusitako helburua lortu dugu, baina atzeratu egin garenez, ezin jakin familiek zer iritzi duten gomendioei buruz.	Familien feed-backa biltzea komeni zaigu.
	2.2. Eskolaren inguruak eskaintzen dituen aukerak baliatu, edonolako testuak irakurtzeko bultzada emateko, batez ere, inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak irakurtzeko.	2.2.2. Zentroaren inguruan irakurketa bultzatzeko antolatzen diren ekintzak identifikatu eta ekintzotan parte hartu.	Zentroaren inguruan antolatutako 2 ekintzetan hartu dugu parte: lehen hezkuntzako ikasleen %100ak eta bigarren hezkuntzako ikasleen %50ak hartu dute parte.	Inguruko beste eragile batzuekin daukagun elkarlana ondo sendotzea komeni zaigu.
<b>3. Irakurtzen ikasi</b>	3.1. Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea.	3.1.1. Haur-hezkuntzako ikasleei tarteka ebaluazioa egitea, kontzientzia fonologikoa zenbateraino garatzen ari diren ikusteko.	Ebaluazioak maiztean egin genituen, aurreikusitakoaren arabera. Ikasleen %60ari aplikatu zaie ebaluazioa. Ez dugu ikasgela guztietan egin ebaluazioa. Ebaluazioa egiteko aurreikusitako datak ez dira lagungarri izan ikasgela guztietara iristeko. Oraindik ikasle asko daude ebaluatzeke.	Ebaluazio-datak aldatzea komeni.
		3.1.2. Proiektuetan lehen hezkuntzako ikasleekin kontzientzia fonologikoa lantzeko ekintzak ere sartzea.	3.1.2. Proiektuetan lehen hezkuntzako ikasleekin kontzientzia fonologikoa lantzeko ekintzak ere sartzea.	10 proiektutan sartu ditugu ekintza hauek. Ebaluazioa egin zaien ikasleen %85ak kontzientzia fonologiko egokia dauka. Aurreko ebaluazioaren aldean hobeto gaude orain (maila egokia daukaten ikasleen kopurua %10 handitu da).

